

Donostia, 2018ko martxoaren 16a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

UDAL WEBGUNEKO BIDEOEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martinezek, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Osoko Bilkurako Araudi Organikoaren 98. artikulua araberak, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN udal webgunean argitaratutako bideoei buruz egindako interpelazioaren ondorioztat.

JUSTIFIKAZIOA

Aste honetako Zerbitzu Orokorren Batzordean, Elgoibarko hilerriko kolunbarioan Gerra Zibileko 24 biktima (euskal geografiako hainbat hobitakoak) ehorzteko ekitaldian egindako bideoaren inguruan egin genuen interpelazioa; gorpu horien artean, Txaldataxur eta Burdinazko zubiaren inguruan aurkitutakoak zeuden, Donostiako udal mugartean.

Ekitaldi horretan, udalbatzako ordezkariak zabala egon zen: Udalean ordezkariak duten bost udal taldeetatik lau ordezkariak hartu zuten parte.

Informazio hori jaso eta zabaltzeko, udal webgunean bideo bat argitaratu da ekitaldia laburbilduz. Aitzitik, bideoan EAJko kargudunengan bakarrik jartzen da arreta, eta han egon ziren beste udal taldeak baztertzen dira.

Alkatetzako zinegotzi ordezkari Viles jaunak, batzordean egindako interpelazioan, esan zuen protagonismoa ehortzitakoek izan behar dutela. Ados gaude hausnarketa horrekin, baina ez dator bat erakutsitako bideoarekin, Udaleko zenbait ordezkari agertzen baitira, halaberrez EAJkoak, eta beste alderdietako arduradunak ez.

Beharrezkoa da gardentasuna eta informaziorako sarbidea bermatzea, benetakoa eta osoa izan behar duen informazioa, herritarrek ikus dezaten ekitaldia plurala izan zela. Uste dugu gobernuak ahalegin handiagoa

egin dezakeela bai gardentasuna, bai informaziorako sarbidea bermatzeko; hortaz honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio webgunean argitaratzen diren bideoak hobetzeko, bideo horietako edukiek udalbatzako pluraltasuna kontuan har dezaten.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.